

## **Zer da B.A.L.A.**

B.A.L.A Gasteizko hainbat Bollerok sortu dugun kolektibo berria da, gure bizipenak eta gorputzak, hau da, gure izana borroka politiko-feministatzat dugun Bolleron sarea. Hortik haratago, izen honen atzean marimutil, lodi, migrante, friki, gaixo, maketak... normatik at geratzen diren gorputzak gara, margen desberdinetatik etorri arren Bollera izateak elkartu gaituena.

Gasteizek bizitza politiko anitza eta antolakuntzarako gaitasun handia du. Hamaika izan dira gure erreferenteak borroka esparru ezberdinetan, bollerismoan barne. Baina, azken urteotan hutsune bat sortu da. Esparru ezberdinetan militatzen geunden kide ugari espazio hau berreskuratzeko asmoarekin biltzen hasi gara, gure bizi proiektu bolleroa politikoki landu ahal izateko.

Euskal Herriko V. Jardunaldi feministetan, beraz, gure parte hartzea eta proposamen politikoa plazaratzea beharrezkoa ikusten dugu. Erreferentzia ezberdinetatik edan badugu ere, egun bollera belaunaldi berri baten lekukotzak dugu gure burua, horrek dakartzan analisi propio eta antolakuntzako behararen mahaigaineratzearekin. Hala ere, kontziente gara egun gure proiektu politikoa eraikitze fasean dagoela, kolektibo gaztea garen heinean diskurtsoak garbi baino materializatzeko ditugu, gure proposamen politikoa garatu eta lurreratzearen erronkan murgilduak gaudelarik.

Behin eta berriz topatzen dugu gure borroka bigarren edo hirugarren mailako kontu bat bezala geratzen dela. Oraindik ere gorputza eta sexualitatea zentzu oso mugatuan ulertzen ditugula iruditzen zaigu. Aurrerago garatuko dugun bezala, kontzeptu hauek esparru askoz zabalagoan pentsatu behar ditugula uste dugu harreman sozialen analisia egin eta eraldaketa sozialak gauzatu daitezen.

Identitateak estrategia kolektibo bezala definitzen ditugun mementotik, bollera izatea munduan egoteko eta sistema iraultzeko estrategia bezala definitzen dugu, hau da, garbi utzi nahi dugu bollera izatea identitate politikotzat dugula eta beraz borroka subjektutzat ere bai. Ez dugu aukera edo orientazio gisa ulertzen, sistemaren baitan arrakala edo haustura bat ekartzen duen identitate iraultzaile gisa baizik. Antolakuntzan sinesten dugulako eta bestalde, proiektu politiko komun bat dugulako.

Antolatzeko eta borrokatzeko hautua egin dugu, gure zapalkuntzari aurre eginez guztia kolokan jartzeko. Izan ere, sistemaren erreproduktzioarako beharrezkoa den erregimen heterosexuala zalantzan jartzen dugu. Kapitalismoak beharrezkoa duen lan-esku eta ideologiaren erreproduktzioa, lan, rol eta espazio banaketa sexualaz baliatuta, kolokan jartzen du gure izateak. Naturala dela sinetsarazi diguten hori desnaturalizatzen baitugu, desira, generoa eta gorputza eraikiak izan direnaren adibide garbiak baikara. Horregatik jazartzen gaituzte, langile mugimendua eta feminismoa

jazartzen dituzten bezala, agerian geratzen delako esplotazioa eta dominazioa ez dela ez naturala, ez aldaezina.

Aurrekoa kontuan hartuta, bollera identitatea zaintzak erdigunean kokatzen dituen posizio erradikaltzat ulertzen dugu, harreman sozial, afektibo eta ekonomiko guztiak hankaz gora jartzeko potentziala duena.

Ondorengo lerroetan beraz, B.A.L.A.ko kideok egun bizi dugun egoera eta ofentsibaren inguruko analisisia zein den garatu eta bestalde, analisi honen baitan proposatzen dugun estrategia politikoa hezurramitzen saiatuko gara.

## **Egungo ofentsiba**

Aurkeztutako posizio hauek abiapuntu hartuta, proiektu politiko bollero hau garatzeko gaur egun identifikatzen ditugun zailtasunen analisi txiki bat dakargu.

Hasteko, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea bollarak askotan militantzia bikoitz bat daramagula, hanka bat feminismoan eta bestea LGBTAIQ+ deituriko mugimenduetan. Honek gehiegitan bi esparrutan borroka handiago baten azpi-sekzio bezala uzteaz gain, gure indar osoa batean edo bestean jarri ezin izateak inbisilizazioa garamatza batean zein bestean, espazio politiko propioa garatzeko dakarren zailtasunarekin. Erdibideko baino erdiguneko posizioa izan beharko lukeela iruditzen zaigu gurea, feminismoa zein disidentzia sexo-generikoen borrokek bultzatzen dituen eta izaera espezifiko erradikala duena.

Hau esanda, bai feminismoan bai LGBT mugimenduetan emandako prozesu desberdinek bollerrismoaren espazio politikoan nola eragiten duten aztertu nahi izan dugu.

LGBT identitateek integrazio eta normalizazio prozesu sakon bat izan dute azken hamarkadetan, gaur egun subjektibotasun heterokapitalistaren esparru gehienetan hauetako modu asko “aukera posible” bezala agertzeraino. Hau da, heterosexualitatea erregimen politiko bezala sostengatzen duten kontzeptu oinarritzkoenak, besteak beste identitatea, generoa, orientazio sexuala, bikote-harremana (monogamoa edo ez), familia, zalantzan jarri ez bitartean, disidentzia erradikala baino heterosexualitatearen “modu alternatiboak” kontsidera ditzakegu gaur egun identitate hauek. Marko honetan, “lesbiana” subjektua irudikatua ikus dezakegu *Caja Laboralaren* publizitate-kanpaina baten parte bezala, heteroarauaren, zurtasunaren, klase-ertainaren kanon burgesak bete-betean erreproduzitzen. Desberdintasun desira-objektuaren aukerara murriztua, asimilazioa ia erabatekoa da.

Izan ere, azkenaldian gero eta argiago ikusi dugunez LGBT+ mugimendu kritikoen borroka nagusietako bat gure bizimodu eta identitateen merkantilizazioaren kontra antolatzen dena da, komunitate hauen harremantzeko modu bereziak ekonomikoki esplotatzeko esparru huts ez daitezten bihurtu kapital handiaren beharren mesedetan. Zenbait aldarri identitario despolitizatuek aukera eman diete enpresa eta instituzioei beren eragina eta boterea zabaltzeko duela ez hainbeste marjinalak ziren espazioetan, aldi berean beren buruak “aurrerakoi” bezala aurkezten gizartearen aurrean. “*Pinkwashing*”-a enpresa zein gobernu eta estatuen praktika esplotatzailak “inklusibotasun”-aren mozorropean estaltzeko tresna boteretsua da.

“Aurrerakoitasunak” gure espazioetan, bai feminismoan zein LGBT+ mugimenduetan, duen paper kolonizatzailea ezin dugu ahaztu. *Pink* eta *purple-washingak* mendebaldekoak ez diren herrialde eta poblazioen genero eta sexualitateen espresio propioen kontra erabiltzen den moduan ikusten dugu, hauek gutxietsi eta jazartzeko, baina baita ere mundu anglosaxoietik modu batean edo bestean inposatzen zaizkigun kontzeptuekin (“*pink* eta *purple-washing*”-ataz hitzegiteko ingelesezko hitzetara jo behar izatea gure errealitatea modu globalizatu batean aztertzea behartuta gaudelako adibide argia da, propioak ez diren kontzeptuekin, kultura pribilegiatu eta izugarri inbasibo batetik jasoak).

Tendentzia neokolonial hauen efektua sentitzen dugu gazte ez-cisheteroengan, kasu askotan haien identitateak espazio globalizatuetan garatzen dituztenak, lurralde, kultura eta historiaren espezifikotasunak alde batera uztera bultzatzen dituenak. Espazio deskontestualizatu hauetan eta eragin anglo-saxoi argiz disidentzia sexo-generikoen hiperdefiniziorako joera aurkitzen dugu, identitate zurrun ultraespezifikoen proliferazio bat, indibiduo bakoitzaren esperientziarako etiketa zehatzena bilatzen dabilela dirudiena. Identitate tradizionalak (zentzu esentzialista batean behintzat) binarioegiak omen direlako, jende gazte askok haien esperientziak ikusgai egin eta balioztatzeke aukera identitarioak biderkatzeke operazio neoliberalari jotzen diote. Identitateak berak aurrekoak bezain zurrun eta esentzialistak dira, baina gehiago daudenez gure indibidualtasuna hobeto adierazten duena aukeratzeko askeagoak izango garelako ametsak heteroaraua indartu besterik ez duela egiten iruditzen zaigu, disidentzia hauek izendatzen dituzten terminoak posizio politiko malgu eta estrategiko gisa erabiltzea zailduz hauei muga zurrunak ezartzerakoan. Azken finean maitasun, identitate eta sexualitate eredu heterosexualaren bariazio etengabeak sortzeak hura zalantzan jarri baino konfirmatu, zabaldu eta indibidualismo gogorrean sakondu besterik ez duela egiten nahiko argi geratzen zaigu. Hau da, autopertzepzio singularrak askatzailea izan daitezke baino estrategia beti izan behar da kolektiboa, bestela politiko-estrategikoki antzua den leku batera eramán gaitzake.

Hiperindibidualismorako joera oraindik ere areagotzen da feminismo txuri-burgesaren emakume hiperproduktibo eta indibidualaren proiektuaren bitartez, arrakasta pertsonalaren atzetik. Bikote harreman eta rol tradizionalen kritika azalekoak

banakotasuna goraiatzan du eta komunitaterik gabeko bakardade itogarrira bultzatzen gaitu. Jada kulturalki ongi ezarria dagoen tendentzia honek, kapitalismoaren zabalkuntza izateaz gain, hainbat eta hainbat gorputz uzten ditu kanpoan: gaixoak, migranteak, ez-txuriak, maila ekonomiko baxuenetakoak... Bizi-proiektu indibidualak posible izateko hauek sostengatuko dituzten talde zapalduak behar dituztela argia da, zaintza eta afektibitate komunitateen sorrera eta sostengua helburu indibidualen azpian jarritz.

Honek guztiak zailagoa bihurtzen du bollerren artean babes-sare iraunkorrak sortzea, askotan proiektu indibidualak lehentasuna hartzen baitute, eta bikote-harremanak zentralitatea izaten jarraitzen dutelako, laguntasun harremanak banakoaren eta bikotearen beharren atzetik geratuz. Zintzoki esan behar dugu gure harreman sexo-afektiboak askotan ez direla heteroarauaren eredutik hain urrun ibiltzen. Polimaitasunaren izenpean ezkututzen diren gorputzen kontsumo eta monogamia ugarien konstelazioak ere hemen kokatuko genituzke. Kapitalismoaren bakardade isolatzaileari diogun beldurrak behin eta berriz mota honetako harremanak eratzera bultzatzen gaitu, behar emozional guztiak pertsona bakarrarengan irauli eta gure bizitza osoa honen inguruan eraikitzea, horrek dakartzan arazo eta arriskuekin. Honen aurrean, laguntasuna harremanak zentroan jartzea, sexualitatea eredu erromantikoetatik haratago garatzea, bikotea ez diren harremanetan sakontzea eta bakardade aukeratuaren ber-signifikazioa gure disidentziaren erdigunean egon behar direla uste dugu.

Bide honetan, erreferentzialtasun faltaren arazoa ere sumatzen dugu, hetero-kapitalismoak eskaintzen digun lesbiana asimilatuaren irudiaz haratago harremanak modu erradikal batean garatu eta landu dituzten bollerren ereduak topatzeko zailtasuna, are gehiago urrutira joan gabe bertako genealogia landu nahi badugu. Bollerismoaren kultura eta kode propioen transmisio faltarekin batera dator hau, urtetan zehar emakumetasunaren, feminitate zein maskulinitatearen eta harremanen inguruko hausnarketa eta esperimentazioak belaunaldi berrietara oso modu urrian iristen baitira. Zentzu honetan, intergenerazionaltasun falta bat sumatzen dugu, belaunaldi desberdinetako bollerren arteko sareen falta, elkar-zaintzarako eta komunitatea sendotzeko berebizikoa deritzoguna.

Orokorrean, bai politikoki zein zaintza-sareei dagokionez, espazio propioaren beharrarekin topo egiten dugu. Honen adibide argia iruditzen zaigu besteak beste bollerren arteko harremanetan ematen den indarkeria eta botere-harremanak kudeatzeko tresna eta espazio falta, talde hetero eta mistoetatik at, gure esperientziaren espezifikotasuna aintzakotzat hartzen dituen. Berebizikoa da erronka hauek gure artean kudeatzeko gaitasuna garatzea, gure proposamen esperientzial eta politikoa, gure komunitatea eta bizi-proiektua, lantzen jarraitu ahal izateko.

## **Bollojabetza feministaruntz**

Garbi dugu, sistemak hegemoniatik kanpo utzi gaituela eta “guretzako” diseinatua zegoena hautatzeari uko egin diogula; margenetan utzi gaituzte eta horien baitan eraiki dugu gure izana eta nahi genuena jakin gabe nahi ez genuenetik eraiki dugulako gure praktika. Garbi dugu, gure bizipenek, inguruak eta sareak memento oro hausnartzera eramán gaituela eta iraganak garbi utzi digu egun, zaintza eta harreman ereduak irauli egin behar direla. Jazarpen eta erasoek agerian utzi dute proiektu politiko eta sare bat eraikitzearen beharra. Bai prekarizazioari aurre egiteko baino baita ere gure nortasuna guztiz eraikitzen dituen kultura burgesak oso gaztetatik bakartasunera bultzatu gaituelako, geure burua ukatzera, ez maitatzera.

Bazterketa hau irauli eta esan nahi berri bat bilatze horrek, mintzen gaituen sistema ukatu eta hau suntsitzera garamatza. Horregatik bollera identitateak dakarren kolektibotasunak gaur egungo sistemari alternatiba integral bat bilatzen dio, iraultzeko tresna bezala ulertzen dugu, bizitzak eta zaintzak erdiguneratzeko.

Bollera izateak beraz, komunitate bat dakar bere baitan, laguntasunaren eta harreman horizontalen aldeko borroka; feminismitik, klase ikuspegitik eta antiarrazismitik antolatu daitekeen harreman eredu eta kolektibitatea da. Hau da, sare bat gisa, kolektibotasun bat, antolakuntza bat. Finean zaintza erdigunean jartzeko apustu irmo bat: saretzea, sare sendoak sortzea, proiektu kolektiboak, etorkizun kolektiboak, bestelako laguntasunak, ditugunak indartzea, bikote-harremanen des-zentralizazioa...

Ezin dugu ahaztu ere, bollojabetzak gure gorputzarekin dugun harremanean eragin zuzena duela. Hots, bollera izateak ez bakarrik munduan besteekin egoteko era bat, gure gorputza ulertzeko, maitatzeko eta nola ez honekin esperimenezko aukera eskaintzen digu. Desira eta plazeraren iraultza bat da. Bollera gorpuztea gure burua zaintzea eta maitatzea ere bada, gure haragia berraurkitu eta begirada heterosexualetik askatzea.

Proiektu horrek sistema arrakalatzeko gaitasuna izanik; estatu logiketatik haratago gure posizioan sendotu eta babestuko gaituzten sareak sortzea eta indartzea lehenesten dugu, finean bizitza sostengatzeko gai den proiektu bolleroa, bollojabetza feminista.

Kolektibotasunen inguruan hitz egiten dugunean beraz, behar beharrezkotzat dugu aliantzen inguruan hitz egitea. Hots, gure borrokan eta etorkizun kolektiboan, aliantzak egitea beharrezko ikusten dugu, indarrak batzeko eta sistema iraultzeko bidean zapalkuntza desberdinei aurre egiten dabiltzanak bidelagun izateko. B.A.L.A.ko kideok hainbat zapalkuntza gorpuzten ditugu, askotan banaezinak sortatzen zaizkigunak. Horregatik gure praktika eta diskurtsoan klase perspektiba, antiarrazismoa, feminismoa

eta antikapazitismoa, besteak beste, presente daude. Baina hortik haratago, langile mugimenduekin, pertsona migrante eta arrazializatuen kolektiboekin, mugimendu feministarekin eta transmarikabolloarekin aliantzak egitea ezinbestekotzat jotzen dugu. Ulertzen baitugu, bakoitza, bere antolakuntza eta perspektibatik, norabide berean doan herri mugimendua osatzen dugula.

Aliantza hauek ordea, horizontaltasun batetik egin behar direla uste dugu, borroka eta zapalkuntza ezberdinen artean ematen diren hierarkiekin kontuz ibiliz eta oreka bat bilatzen saiatuz. Horretarako, guk gorpuzten ditugun pribilegioen hausnarketa eta kontzientziazioa egitea ezinbestekoa da, erruduntasun antzuak alde batera utziz eta arduraz jokatzuz. Egun, badirudi pribilegioen eztabaidak, une oroko neurketetara garamatzala, hots, egoerak neurtu eta legitimitateak eman eta kentzeko arriskua duela. Pribilegio hauek era indibidualean lantzetik haratago, hauen kolektibizazio bat eman behar dela deritzogu, ardurak kolektiboa hartuz eta taldearen disponibilitatera jarriz. Kontziente izan behar dugu, pribilegioak sistemaren erreminta direla, kideen arteko zapalkuntzek bere horretan irauteko, beraz behar beharrezkoa dugu hauek inguruan hausnartu eta sistemari indarra kentzeko. Gure ustez pribilegioen analisisian proiektu indibidualen arrakasta erlatibizatu beharko genuke, talderako tresna bihurtu dadin.

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko kolektibo ezberdinen arteko hausnarketa, elkargune eta babes sareak osatzearen aldeko apustua egiten dugu. Gasteizen emakume\*, bollera\* eta trans\*-ek sorturiko Talka proiektu eta gune okupatu eta autogestionatua horretarako erremintatzat hartzen dugularik.

Beste aldetik ordea, gure borrokaren zilegitasuna eta garrantzia aldarrikatzen dugu aliantzak egiterako orduan, askotan bigarren edo hirugarren mailako borrokatzat hartzen baita gurea, inbisibilizaziora eta infantilizaziora joz. Azken finean, erregimen heterosexuala oso errotuta dago gure barnean bai eta herri mugimenduan. Beraz, sortzen ari garen eta sortuko ditugun aliantzak borroka desberdinen elkargune, babes-sare eta zaintza-sare izan behar dira, eta bide horretan pairatzen ditugun erasoen aurrean erantzun bateratua emateko kapaza izango direnak. Beste kolektibo eta mugimenduekin aliantzak egiteko ordea, bollarak gure artean antolatzea ezinbesteko ikusten dugu, gure zapalkuntzak, gure beharrak eta gure proiektu politikoa mahai gainean jartzeko eta bertatik eragiteko.

B.A.L.A.ren helburu beraz, gure proiektu politiko honekin aurrera egin eta une oroko hausnarketa sustatzen jarraitzea dugu. Gasteizeko kaleak astindu ez ezik, Euskal Herriko mapa politikoan bollera antolakuntza propioaren indar berriak sustatuz. Guk inguruko proposamen eta esperientziekin ikasten dugun bezala gurekin hausnartzera gonbidatzen zaituztegu eta aliantza berriak ehuntzera.